

ERAKUNDEAREN DATUAK (eskatzen diren 5 eremuak bete mesedez)

Datu hauek eta praktika onen fitxa betetzerakoan, baimena ematen duzu goian agertzen diren eremuak eta betetako praktika onen fitxa Euskaliteko webgunean argitaratzera, modu irekian zabaldu daitezten.

1. Erakundearen izena:	Bermeoko Udala-Behargintza
2. Sektorea:	<input type="checkbox"/> Hezkuntza <input type="checkbox"/> Industria <input type="checkbox"/> Osasuna <input type="checkbox"/> Zerbitzuak <input checked="" type="checkbox"/> Administrazio publikoa <input type="checkbox"/> Gizarte ekintza
3. Langile kopurua:	5
4. Webgunea:	www.bermeokoudala.eus
5. Erakundearen jardueraren deskribapena: (produktu eta zerbitzu nagusiak, merkatua, bezero motak...):	Helburu nagusia eskualdean Enplegu eta Garapen politika ezberdinak bultzatzea da. Horretarako Behargintza oinarritzko bi zutabetan oinarritzen da: ekintzailtzaren sustapena eta eskualdeko sustapen ekonomikoa. Biak elkarri lotuta daude, era berean bizi kalitatearekin. Gure zerbitzuak: Ekintzailtzako aholkularitza Enpresen lehiakortasuna bultzatzea Diru laguntzen informazioa Merkatari eta ostalariekin elkarlana

Harremanetarako datuak

Eremu hauek hautazkoak dira. Datuak betetzen badituzu, webgunean azalduko dira bere horretan. Horrela, zure praktika interesgarria suertatu zaion erakundea zurekin harremanetan jarri ahal izango da:

Solaskidearen izen-abizenak:	Nere Mintegi Elorriaga
Helbide elektronikoa:	nmintegi@bermeo.eus
Telefonoa:	946179190

PRAKTIKA ONAREN AZALPEN LABURRA

1. Praktika onaren titulua:	Erakunde publikoen arteko lan harreman euskaldunduz
2. Praktika onaren azalpena: Zer da? Zertan datza? Nondik dator? Zeintzuk dira onurak, lortu diren emaitzak?	<p>Gure saila beti egon da nahiko sartuta euskararen erabilerarekin, bai herritarrari begira, bai barne mailan.</p> <p>Aspaldi konturatu ginen administrazio publiko batzuekin gure lan-harremana, hitz eginda edo idatzita, gehienbat gaztelaniaz egiten zela. Askotan ,gure solaskideak ez zekielako euskaraz, edo partekatzen genuen dokumentazioa ia beti gaztelaniaz zegoelako.</p> <p>Batzuetan zaila zen euskararen ikuspuntuari eustea beste administrazio batzuen funtzionamenduaren aurrean, baina erabaki genuen irmoagoak izatea eta euskaraz idatzizko eta ahozko komunikazioa eskatzea.</p> <p>Une honetan, administrazio publikotik jasotako dokumentazio guztia euskaraz izatea eskatzen dugu, nahiz eta gaztelaniaz iritsi. Erakunde batzuentzat zailagoa da, baina beste batzuentzat funtzionamenduan aldaketa bat besterik ez da.</p> <p>Onurak:</p> <p>Euskararen erabilera sustatzen da gure erakunde Euskaraz hitz egin eta idatzitako lan-harremanak lortzen dira Euskararen erabilera ikusarazten da administrazioan Behargintzaren lan hizkuntza euskara izatea ahalbidetzen du.</p>

PRAKTIKA ONAREN INGURUKO DOKUMENTAZIOA, IRUDIAK, GRAFIKAK...

(Hemen itsatsi tresna/dinamika/praktikaren irudiak, dokumentuak, grafikak, eta abar.)